

# B

BARREN

TOKIKOM

# Nazioarteko Xake Txapelketa

Abenduaren 13tik 19ra



## BURUAK ETA BIHOTZAK BAT EGITEN DUTEN LEKUAK

*“Buruarekin eta bihotzarekin  
erosteko deia egin nahi diegu elgoibartarrei”.*



### Zergatik kanpaina hau?

Argi dugu hemen bertako komertzio txikiok gauza on asko ditugula eskaintzeko, eta herritarrei jakinara-zi eta gogorazi behar diegu bertan erosteak gure herri-arentzat eta gizartearentzat onura dakarrela. Herrian erosita, guztiok irabazten dugula alegia. Merkatariak ere animatu nahi ditugu momentu zail hauetan hobetzen jarrai dezaten, herritarrei zerbitzu hoberena eskaintzen jarraitu ahal izateko. Guretzat oso garrantzitsua da erakunde publikoek bertako komertzio txikiaren aldeko apustua egitea.

### Zer adierazi nahi duzue kanpaina honekin?

Kanpainaren irudia bi laranja erdi dira. Esan nahi duguna da erosketak egiterakoan aldagai asko hartzen ditugula kontuan. Aldagai horiek arrazionalak eta emozionalak dira. Beste saltoki batzuek arrazoi ekonomiko edo arrazionalekin tentatzen dituzte erosleak. Komertzio txikiak arrazoia eta bihotza erabiltzen ditu, eta herritar askok uste dutenaren kontra, ez dira besteak baino garestiagoak. Beraz, komertzio txikia ez da alderdi emozionala soilik (laranja erdia), alderdi arrazionala ere bada (laranjaren beste erdia). Eta erosketa osoa egitea proposatzen dugu guk (laranja osoa).

### Zein dira arrazoi arrazional eta emozional horiek?

Bertako komertzio txikian erosten dugunean, aberastasuna herrian geratzen da eta banaketa justuago bat egiten dugu: bertako ekoizleei laguntzen diegu; bizi-eredu jasangarria bultzatzen dugu herrian, aktibitatea sortuz, mugikortasuna erraztuz eta hondakinak muriztuz. Hori guztia hurbiletik egiten dugu, harreman sozialak hobetuz, komunitatea indartuz, espazio publikoak bizirik eta seguru mantenduz, konfiantzaz, eta noski, kalitatezko produktu eta zerbitzuak eskainiz. Arrazoiak asko dira. Koherentziaz jokatu eta erosketa argia sustatu nahi badugu, ez gaitezen laranja erdiarekin geratu eta eros dezagun bertako komertzio txikian. Txikia izatea da handi egiten gaituena.

### Gipuzkoan dugun merkataritza egiturak zer ezberdintasun dauka beste herrialdeekin alderatuz gero?

Momentu honetan Gipuzkoan 10.000 txikizkako merkataritza establezimendu inguru ditugu eta 24.000 lanpostu. Beste datu garrantzitsu bat: 1.000 biztanleko 15 denda ditugu; EAEn, 13,48 dira, Espainian, 12tik behera, eta Europan, zortzi bakarrik. Datu horrek gure herri eta hiriek duten egitura eta gure-bizi erdua islatzen du. Aniztasuna altxor bat da. Harro egoteko arrazoiak baditugu eta horrela izaten jarraitzea espero dugu. Egitura horri profesionaltasuna eransten diogu, eskaintako produktu eta zerbitzuetan kalitatea, eta eskaintza zabala eta gure auzo eta herrietan inplikaturik gaude, ingurunea hobetzeko hainbat ekintza egiten ditugularik. Guzti horrek osatzen du Gipuzkoako merkataritza egitura, eta gizartean eragin nabarmena dauka, gure bizitza ereduaren aldagai garrantzitsuenetarikoa izanik.



Santa Ana kalea 12, behea ezk.  
Tel.: 943 740 025 / 617 627 152  
gobikeelgoibar@gmail.com

Polar etxeko erlojuetan  
**%10**eko beharpena.



San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35

**Erosi,  
eta 250 €-ko  
bi baleen  
zozketan  
sartuko zara**

PULTSERA 110€  
ERLOJUA 149€  
BELARRITAKOAK 69€  
ERAZTUNA 70€  
LEPOKOA 129€





Angel Ugarteburu

Argia astekarian irakurri berri dudanak bajaukak irakaspenik, Andres. Ustelkeriari lotuta, Atenasko Demostenes aipatzen jok idazleak. Greziako herrien arteko etsaigoa nagusi zen hartan Miletoren alde hitz egiteko eskatu Demostenesi eta honek ezetz, ez zuela inoiz Miletok ezer onik esango. Gauza txarrik

ere ez esateko, behintzat, eskatu Miletokoek eta dirua agindu zerbitzu horren truke. Tentazioa.

**“Gaurkoa da azkena, Andres!**

**Txanda ematea dok hau, eta ez agurra”**

Hala, eztarriko min latza eta anginak zituela aitzakia hartuz, isilik gure Demostenes ospetsua. Gezur galanta, eta sosak poltsikora.

Gero, hala galdetu ei jeutsan lagun zuen Atenasko antzezle ospetsu bati:

- Zenbat irabazten dok antzezpen bakoitzeko?
- Honenbeste
- Askoz gehiago irabazi joat nik isilik egotearren.

Ez joat nik esango besteen alde txarrak ezkutatu behar direnik. Ez dok komeni, hori gizartearentzat kaltegarri denean, behintzat.

Besteak kezkatzen najok gehiago: alde onak ez aitortzeak. Badi-ra inguruan hainbeste pertsona on, gizarteari ekarpen egokiak egiten dizkietenak. Norbere gaztelutxotik irten, aurreiritziak baztertu eta gizatasunez aitortzea ez al litzateke zuzenena? Transbertsalitatea edo ikuspegi horizontala ere deitzen jakok horri. Taldekeriak pertsonen arteko harremana eta lankidetzaz oztokatzen jok sarriegi. Hori gainditu behar genikek, ez?

Gaurkoa azkena, Andres! Gure **Barren**bideak egin jok berea. Beste bati lekua lagatzeko prest najak. Ez aspertu naizelako, aire berria komeni delako baino. Txanda ematea dok, eta ez agurra. Dena den, atsegina izan dok hirekin egindako saioa.



Andres Alberdi

Irakaspen handia Demostenesek emandakoa, Angel: bizitzaren beraren metafora, gizakiaren alde ahul eta ustelenaren isla.

Demostenesen hori irakurri bezain laster, beste anekdota batekin gogoratu nauk; Jose Luis Beloso zenak sarri kontatu ohi zigun batekin, hain zuzen. Berehala gogoratuko haiz.

Behin, berriketan ari omen zituan lauzpabost gizon elgoibartar, Jose Luis bera ere tarteko. Ezaguna zuten pertsona jakin bat omen ziaten ahotan hartua, eta Jose Luisek esan, bere iritziz, gizon zintzo eta azkarra zela hura, Elgoibarren gutxi bezalakoa. Solaskideetako batek berehala eman omen zioan arropostu gordina: “Azkarra hori? Ez jok, ba, diru asko egin!”.

**“Heuk ondo dioanez, txanda ematea duk onena, gurpilak bere ibilian jarrai dezan”**

Horra pertsonaren balioaren neurria: dirua! Diru-soinuak erakusten dik orduko eta gaurko gizartearen nola atzeak eta aurreak dantzatu. “Diruaren morroi izaten erakutsi digute” (🎵). Nola harritu gero ustelkeria eta iruzurrekin! ?

Gizarteari ekarpen egokiak egiten dizkieten pertsonak benetan ez balioestea eta dagokiena ez aitortzeak ematen dik min. Niri ere bai. Haien balioak eta ekintzak baztertera utzi, eta diruaren zirkoan jainkotu ditugun kaiku eta astakirtenak ditiagu nonbait gaur egun ere idolo, heroi eta izar. Sergio Ramosen gisakoak (hemengoren bat edo beste aipa nezakean, baina distantzia nahita hartu diat) aurkezten zizkigutek gure nahien eta desiren bide-erakusle, alajainkoa! Nola egingo diagu ba aurrera, neurria eta irakasbidea horiek badira, eta ez bakoitzaren askatasuna eta kultura!?

Agur esateko ordua iritsi zaiguk, bai, Angel, eta Gabonetako kanpaihotsen atarian egin ere. Gozamina izan duk orri hauetan hirekin solasean aritzea *huntaz eta hartaz* zazpi urtean. Baina heuk ondo dioanez, txanda ematea duk onena, gurpilak bere ibilian jarrai dezan. Hala, jarrai deza la **BARRENEK** mugak urratzen datozen urteetan ere.

II. URTEURRENA

**MARIA LETE GABILONDO**



2012ko abenduaren 4an hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 13, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztetik.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiari lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikuniki.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



## LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuniki. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Eskerrik asko

Ilun esnatu zen eguna zapatuan, eta gotik egin zuen euria egun osoan zehar, baina hala ere, bai mendarorrek eta baita inguruko herrietatik etorritako lagunek ere ondo baino hobeto erantzun zenuten, eta egun polita igaro genuen guztiok. Horregatik, Mendaroko Udala osatzen dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi, eguraldi beltzari kontra egin eta jai-eguna zapuztu ez zedin zuen onena jarri zenutelako. Datorren urtean ere Kontzezio Azoka eguna elkarrekin ospatuko dugulakoan, mila esker guztioi.

Mendaroko Udala

### San Lazaro egoitza Foru Aldundiaren eskuetara kudeaketa publikoa eta bermatuz

Gaurko [atzoko] Udalbatzarraren osoko bilkuran Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena onartzea dagokigu, hemendik aurrera San Lazaro Udal Egoitza Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu dezan.

Pozik egoteko eguna da, 2008ko Gizarte Zerbitzuei buruzko legeak arlo honetan zioena gaur beteko baita: adinekoentzako egoitzen kudeaketa Foru Aldundien esku uztea. Berandu bada ere –aurreko legealdian EAJren eskuetan zegoen foru-aldundiak ez baitzuen inongo aurrerapausorik eman–, ailegatu da eskualdaketaren eguna.

Eta ailegatu da gainera, kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko apustu garbia eginez. Azpikontratazio eta prekarietatean oinarritutako gizarte zerbitzuaren ereduaren aurrean, ez daukagu ahazteko San Lazaroko langileen iazko greba luzea. EHBildutik kudeaketa publikoa, zerbitzuen kalitatea eta lan baldintzen duintasuna bermatuko dituen eredu eraikitza gaoz.

Ez dakigu zerk mindu dituen gehiago: aurreko legealdian konpondu ez zutena guk konponetzeak edo eredu berri bat eraikitzeak, baina oso adierazgarria izan da gezurrez osatutako EAJen erantzun bortitza.

Gure herrira itzuliz, ezin duguna ulertu da gure alkate jaunak nola hartu duen parte kanpaina honetan, eskualdatze prozesua bera eta San Lazaroko langileen etorkizuna kolokan jarritz. Eta gutxiago, jakin dakigunean, publikoki hi-

tzarmenik ez zuela sinatuko adierazi zuenean denbora zeramala eskualdaketaren baldintzak negoziatzen inongo arazorik gabe. Eta are gutxiago, medioetan zarata nahikoa atera ondoren, adierazi zuenean hitzarmena sinatu egingo zuela lortutako baldintza berriengatik, ezkututuz lortutako baldintza “berri” hori aurretik adostua zegoela.

Ezin bukatu elgoibartar guztiak zoriondu gabe, eta bereziki, San Lazaroko erabiltzaileak eta langileak.

EH Bildu

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# ‘Euskaldunak Elgoibarren’ liburua aurkeztuko du Elgoibarko Izarrak abenduaren 17an

Besteak beste, euskaldunon iragana, egungo egoera eta etorkizuna landu dute bertan

**A** benduaren 17an aurkeztuko dute, Kultur Etxeko sotoan (19:00etan), Elgoibarko Izarrak pres-tatu eta Danobat kooperatibak eta Elgoibarko Udalak diruz finantzatu duten *Euskaldunak Elgoibarren* liburua. Lan hori sortzeko ideia elkartearen 50. urteurrenaren harira izan zuten, eta lanaren koordinatzailea izan den Imanol Larrañagak esan duenez, gure herria eta euskara lotzea izan da liburuaren helburu nagusia. Liburuak sei atal dauzka, eta atal bakoitza elkarte-bazkide batek idatzi du. Eta bestelako lanak ere bazkideen artean egin dituzte: Andres Alberdik euskara-zuzenketak egin ditu, Asier Orbeak erretratu-lanak, eta Leire Rubiok diseinu- eta maketazio-lanak. Larrañagaren esanetan, liburuan jaso den eduki interesgarriaz gain, lan hau egiterakoan bazkideek izan duten parte-hartzea eta herritarren protagonismoa dira, behar-bada, liburuaren bi zutabe nagusiak.

Liburuak 10 euroko prezioa izango du (8 euro, elkarte-bazkideentzat), eta Elgoibarko Izarrak eta BARREREN egongo da salgai.



## SEI LEIHO, ELGOIBARKO EUSKALDUNAK IKUSTEKO

### 1. Elgoibar duela 50 urte

Andres Alberdi izan da atal honen arduraduna. Garai hartako datu soziolinguistikoekin batera, lau lagunekin egindako mahai-inguru sakona eskaini digu Alberdik. Gainera, duela 50 urteko Elgoibar hobeto ulertzeko, beste sei herritarren testigantzak eta bizipenak ere kontatu ditu atzera begira egindako atal honetan.

### 2. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte

Imanol Larrañagak josi du atal hori, eta, besteak beste, elkarteak 50 urtean egindakoaren errepasoa eta balorazioa egin du. Gainera, sortzaileen eta hiru lehendakariaren berbak ere jaso ditu, eta baita hamar bazkideren Elgoibarko Izarrarekiko sentimenduak ere.

### 3. Elgoibar gaur egun

Egungo egoera deskribatzeko ardurak Kristina Zuatzubizkarrek eta Itziar Agirregomezkortak izan dute. Atalaren oinarrian, egungo egoera soziolinguistikoa ezagutzeko taulak eta datuak daude, baina bestelako normalizazio-planen berri ere ematen da. Atala Lore Laspiurren iritzi-artikuluarekin amaitzen da.

### 4. Elgoibar 50 urte barru

Ane Odria da etorkizunari begira jarriko gaituen atalaren arduraduna. Ane herriko 16 gizarte-eragilerekin egon da, eta, besteak beste, elkarte-eragile bakoitzari galdetu dio zer egiteko prest dagoen Elgoibar 50 urte barru herri euskalduna izan dadin. Atalaren bigarren partean, berriz, lau gazte bildu ditu mahai baten bueltan, eta gazte horiek euskara zelan bizi duten azalduko digu.

### 5. Euskal herrietatik guri begira

Ainara Argoitiak jarri ditu inguruko herrietakoak Elgoibari eta elgoibartarroi begira. Eta galdetu die ea zelan ikusten duten Elgoibar eta Elgoibarko Izarra. Eta atalaren bigarren zatian, berriz, HUHEZIKO irakaslea eta soziolinguistikari aritua eta aditua den Julen Arexolaleiba arrasatearrari euskalgintzaren gaineko elkarriketa luzea eta sakona egin dio.

### 6. Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena

Liburuari amaiera emateko, Ainhoa Mendibil atala dator. Bertan, Elgoibarko Izarraren 50. urteurrenaren harira 2013ko martxoaren 15ean Herriko Antzokian izan zen errekonozimendu-ekitaldian ikusi eta bizitakoa jaso du Ainhoak. Besteak beste, orduko erretratuak, testuak eta bertsoak jaso ditu denon gozamenerako, eta, gainera, ia ekitaldi osoa ikusteko eta entzuteko moduan laga du, QR-sistemaren bidez.

## Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren ospatuko dute 2015eko ekainaren 7an

‘Gustatzen jata, gustatzen jaku’ lemapean ospatuko dute jaia

**A**tzo aurkeztu zuten Euskal Eskola Publikoaren jaia udaletxean. Herri Eskolako ordezkariak, Kalamua guraso elkarteko kideak, Udal agintariak, Institutoko eta Mekako irakasleek hartu zuten parte aurkezpen ekitaldian, eta nabarmendu zuten lorpen handia da Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren ospatzea. Elkarlanean dihardute festa antolatzen, Herri Eskolaren baloreak oinarri hartuta. “Elkarlanean dihardugu guztiok eskutik helduta, gure seme-alabak izan daitezten euskal hiztun zintzoak, guztion hezkuntza-eskubidearen aldekoak, emakume eta gizonen berdintasuna bilatuko dutenak, natura eta kirola maiteko dituztenak; elkarlanean dihardugu gure seme-alabak izan daitezten desberdintasuna aberastasuna dela eta elkarlanean emaitza hobekien lortzen direla uste izango duten elgoibartarrak”. Azken batean, “guztionak izango diren euskal eskolak” sustatu nahi dituzte, kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea oinarrizko eskubidea delako.



### ‘Gustatzen jata, gustatzen jaku’

Jata erlea eta haren erletxoak izango dira Euskal Eskola Publikoaren jaiko maskotak, eta *Gustatzen jata, gustatzen jaku* izango da erabiliko duten leloa. Erleak ekosisteman behar-beharrezkoak diren bezala, gizartearen garapenerako herri eskolak ezinbestekoak direla uste dute, eta Herri Eskola Elgoibarko herriarentzat ere neurri batean “behar-beharrezkoa” dela adierazi dute.

Erleen moduan dabilta lanean, Euskal Eskola Publikoaren jaia benetako festa izan dadin. 2015eko ekainaren 7an izango da festa nagusia, baina urte osorako egitaraua prestatu dute, herriko eta Gipuzkoako beste hainbat elkarterekin batera. Pozik eta gogotsu dabilta lanean, “ilusioz, elkarri lagunduz, hamaika ideia eta ametsi jarraituz”. Lan “mardula” egiten ari dira, “Elgoibarrek eta gizarte honek merezi duelako”.

## Gaur gauean grabatuko dituzte abenduaren 31ko kanpaikadak



Biharko iragarrita zegoen abenduaren 31ko kanpaikaden grabazioa, baina biharko euria iragarri dutenez, EITBk gaur

egingo du grabazioa. Egunez aldatu badute ere, urteari agur esateko antolatu duten jaialdia iragarrita zegoen berbera izango da: lau orduko jaialdia prestatu dute, 20:00etatik 24:00etara, baina urtearen azken egunean emango duten grabazioa 21:00etatik 22:00etara egingo dute. San Bartolome parrokiako ordularia orduz aldatuko dute, eta 23:00etatik 24:00etara izango balitz bezala egingo dute grabazioa. EITBkoek txapelak eta bestelako apaingarriak banatuko dituzte, festa giroa erabatekoa izan dadin. Su artifizialik ere ez da faltako eta argiztatu egingo dute parrokia, San Bartolome egunean egin zutenaren antzera.

Euskal Telebistako aurkezle eta aurpegi ezagunak etorriko dira Elgoibarrera. Oihan Vega DJak girotuko du gaua eta Euskal Herriko ahots talde onena bilatzen duen ‘A ze banda!’ saioko finalistak ere etorriko dira.

## Pertsonaia **Luis Ulazia**



*Elgoibarko hiri bilakaera* izenburuko liburua aurkeztuko du Luis Ulazia arkitektu elgoibartarrak eguenean, abenduaren 18an, Elgoibarko Kultur Etxean (19:00). Ulaziak 73 urte ditu eta 1981. urtetik 2000. urtera bitartean udal arkitektua izan zen. Liburuan, XX. mendeko azken bi hamarkadetan Elgoibarren hirigintza alorrean egin diren obren errepaso egiten du, irudiz eta planoz lagunduta, eta kritiko agertzen da egindako lan askorekin.

## Zenbakia **208.000**

Herriko lorategi eta berdeguneen zaintzarako zerbitzua lehiaketara aurkeztu du Elgoibarko Udalak. 208.311 euro (gehi BEZa) emango ditu Udalak horretarako, baina lehiaketara aurkezten direnek aukera dute nola ez, hori baino merkeagoan egiteko eskaintza. Enpresa esleipendunari lau urtean 833.245 euro + BEZ ematea aurreikusten du Udalak, beti ere kontratu hori urtez urte luzatzea erabakitzen bada.

## Asteko irudia **Merkatu plazako arrapala**

Merkatu Plazako sarreraren eskilara zati bat kendu eta arrapala egin dute, irisgarritasuna hobetzeko. Elgoibarko Udaleko Hirigintza Sailetik jakinarazi dute 5.000 euro inguru erabili dituztela obra hori egiteko. Arrapala egin ahal izateko, Merkatu Plazako sarrerako eskuinaldean zegoen ONCEko loteria saltzailearen kabina ezkerrean lekuz aldatu dute, eta telefono kabinak, berriz, bigarren sarreraren ondora eraman dituzte.



## **Martitzenean aurkeztuko du Elgoibarko Udalak 2015eko egutegia**

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak prest du dagoeneko 2015eko egutegia, eta martitzenean aurkeztuko dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan hasita. Argazki sarituen egileei unean bertan emango dizkiete sariak, eta ekitaldia joaten direnek une horretan bertan izango dute egutegia eskuratzeko aukera.

## **Euskaraz ez dakiten gurasoentzako hitzaldia antolatu du Elgoibarko Izarrak**

Euskaraz ez dakiten gurasoek euren umeei eskolako lanetan lagundu ahal izateko hitzaldia antolatu du Atxutxiamaikaren Kibilduz egitasmoak astelehenerako. *Nola lagundu seme-alabei?* izan ohi da guraso askoren kezka, eta horri erantzuten saiatuko dira kafe-tertulia formatoko hitzaldian. Astelehenean izango da hitzaldia, Kultur Etxeko sotoan, 18:30ean.

## **San Lazaro egoitzako egoiliarrentzako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Eguberrietarako**

San Lazaro egoitzan ere ospatuko dituzte Eguberriak, eta horretarako lehenengo lana atzo egin zuten: egoitza bera apaindu zuten, Eguberrietako apaingarriekin. Datorren astean, bestalde, Nagusilan Bikoteak kantaldia eskainiko du egoitzan bertan martitzenean, eta eguaztenean, berriz, Eguberrietako postalak egingo dituzte. Eguenean Aire Andaluz taldeak sebillana dantzen saioa eskainiko die egoitzako egoiliarrei, eta barixaku arratsaldean Bingo berezia egingo dute. Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era bitartean ekitaldi berezi gehiago egingo dira.

# ANDRES ALBERDI

## IRAKASLEA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Andres Alberdiren *Ahoskera* liburua argitaratu du, EIMA Euskal Ikasmaterialgintzarako estilo-liburuko bederatzigarren liburukia. Luze jo du liburu hau egiteak, sei urtetik gora, baina dagoneko argitaratu dute eta Interneten ere eskura daiteke. Hemen:



## “Erdararen azentu-moldeak gaina hartzen ari zaizkigu ahozko jardunean”

EIMA bildumako bederatzigarren liburua da hau, zure hirugarrena bilduma horretan. Zer da, baina, EIMA? Eta norentzat dira liburu hauek? EIMA izena akronimo bat da eta euskal ikasmaterialgintza esan nahi du. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982. urtetik hona abian duen lan-programa da. Berez, argitaletxeek edozein liburu, CD, bideo... argitaratu aurretik Eusko Jaurlaritzatik pasatu beharra dute beti, material pedagogikoko horiei guztiei minimo linguistiko bat betetzea eskatzen zaielako. EIMAn talde batek aztertzen ditu material horiek eta hark esaten du dagoen-dagonean argitaratu daitezkeen, komeni den aldaketaren batzuk egitea, edo eta material horrek ez duen eskolarako balio. Talde horrentzako sortzen dira liburuki hauek nagusiki, baina baita ere argitaletxeetako hizkuntza arduradunentzat eta oro har irakasle guztientzat.

### Zein behari erantzutera datoz liburu hauek?

Ikusi genuen ikasmaterialetan bazirela ahulezia eta zalantza batzuk arautu beharrekoak eta behar horri erantzutera datoz liburu hauek. Ikusi genuen Euskaltzaindiak eman gabe dituen arau batzuk behar zirela testuliburuetarako, eta halaxe, ausartu ginen lan hori egitera eta bederatzigarren liburuki hauek ateratzea adostu genuen, eskolarako erreminta gisa. Liburu hauek denek badute, baina, ezaugarri bat: Euskaltzaindiaren bedeinkazioa dutela guztiek; Euskaltzaindiak onetsitakoak direla, alegia. Euskaltzaindiak gerora har ditzakeen arauak ez diete kalterik egi-

ten, eta bitartean, [akademiak] onartu egiten ditu.

**Bistan da idatzizko jarduna arautzen lan handia egin dela, baina ahozkoaren inguruan hauxe da argitaratu duzuen lehenengo lana. Zergatik kostatu da horrenbeste?**

Batasun literarioa (idatzizkoa) lortzea bera ere zaila izan zen, baina lortu zen. Kontua da ahozkoa arautzea zailagoa dela askozaz gorabehera pertsonalagoa delako. Nork bere ahotsa dauka, nork bere tonua, bakoitzak bere azentua... eta Euskal Herrian azentu asko daude. Azentuarena, esaterako, auzi oso zaila da. Euskalki bakoitzak, eskualde bakoitzak, berea du gurean, bere azentu-doinuera, eta gainera, azentua kontu ibiltaria (izan) da. Oso zaila da hori dena gorputzen. Izan ere, modu zainduan edo lagunartekoan ari garen ere, ezberdin egiten dugu. Historikoki lehen ahalegina egin zuena [Jose Luis Alvarez Enparantza] *Txillardegia* izan zen. Euskaltzaindiari ahozkeraren batua martxan jartzeko eskatu zion Txillardegik, baina Euskaltzaindia ez zen ausartu eta hortxe zegoen gaia, lagata, guk heldu diogun arte. Eskoletan diharduten irakasleek eta telebista nahiz irrati esatariek egunero dituzte zalantzak euskal azentuaren moldearekin, adibidez, eta euskara batuari begirako azentuaren ezaugarri jakin batzuk eskaini behar genizkien, lagungarri modura. Txillardegia hasi zen hau dena lantzen eta jarraitu zion gero J.L. Hualde euskaltzain urgazleak. Nik hori hartu eta haien ideiak garatu ditut.



Hitzaurrean bertan Begoña Garamendi Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak onartzen du ahozko jarduna arautzearen gainean zalantzak izan direla. Hala dio berak: “Noraino komeni zaigu ororentzako mintzaz-eredu bat diseinatzea, adostea eta zabaltzea, zabalkunde-saio horrek lekuan lekuko hiztun bizien jarduna moteldu, makaldu, gatz-piper gabetu, eta kasurik larrienenetan, solasbide lasai-gozorako ezindu egingo badigu?”. Kezkatzen zintuen horrek zu ere?

Letra horiek askotan arazoa ezkututzen dute. Onartu behar dugu ahozkeran nibel bat baino gehiago dagoela euskaraz. Erregistro-kontuan dago gakoa. Gutxienez hiru erregistro bereiztu beharko genituzke: erregistro formal jasoa, erdi mailakoa eta lagunartekoa, eta beraz, lagunartean ari garela ez dugu lotsarik izan behar erregistro formalean baino hizkera molde askoz erlaxatuagoan aritzeko. Berez, ez genuke arauak akordatu behar lagunartean ari garenean. Baina badago beste plano bat non jo beharko genukeen euskara estandarago batera. Irakaskuntzan, adibidez, maisu elgoibartar batek elgoibartarrez egin beharko luke eskolan haur txikiekin, baina maisu hori ari bada DBHn edo Batxilergoan eskolak ematen jo beharko luke euskara batu estandar batean hitz egitera – Klasea ematen ari denean, noski–. fonetismo lokalak saihestu eta elkarketa fonetikoak behar bezala egin beharko lituzke, eta hitzak osorik esan.

**Finkatu dituzue arau batzuk, “batez ere erdararen morrontza nabarmeneko ezaugarri deigarriak ihes egiteko”. Hala ere, erdaren eragina edo idatzizko jardunarena da handiagoa ahozkoan egiten ditugun aldrebeskerietan?**

Nagusiki erdaren eragina, baina zuk aipatu duzun hori ere badago. Ez digutenez irakatsi euskararen fonetika zelan den, ikusten ditugun letrak irakurtzera lotu gara. <Ez zara> ikusten dugu idatzian eta halaxe irakurtzen dugu, baina hori euskaraz, naturalki, inork ez du sekula horrela esan; [Etzara] esan izan da beti. Hori kontsonante-bilkurei dagokionez, baina azentuaren ingurukoak gehiago dira erdararen eraginagatik, idatzizkoaren eraginatik baino. Gaztelaniaren molde nagusian, azken aurreko silaba indartzen da, eta euskararenean –ez Euskal Herri guztian, baina bai nagusiki euskara batuaren moldean– hasieratik bigarrena da indartzen dena. Hala, erdaraz ari bagara, [ander<sup>re</sup>ño] esango dugu, baina euskaraz [ander<sup>e</sup>ño] esan beharko genuke. Gaztelaniazko [hospitá-les] guk [ospitaleak] esango genuke. [Eskerrikasko] beharrean [eskerrik asko] da gurea. Auzi zaila da azentuarena, hala ere, molde asko daukelako euskaraz. Dena den, oso arrunt ari zaizkigu bihurtzen euskarak orain arte ezezagun izan dituen ahoskera eta azentu moldeak.

**Irakasleentzat ere bada liburu hau. Beharra badute hortaz.**

Bai. Irakasleek ez dute buruan eskema bat azentuari dagokionez eta ni

saiatu naiz gutxienez bost ideia sartzen buruan: euskarak badu azentua, gaztelaniaren aldean ahulagoa bada ere; azentu-unitatea ez da hitza, baizik eta aldiari aldiari tokatzen den sekuentzia edo kontua; euskaraz azentuak hitz batzuetan balio kontrastiboa du eta balio du bereizkuntza egiteko. Adibidez: basoa (edallontzia) edo basoa (oihana); euskaraz estandarrean bigarren silaba eta azkenekoa nabarmentzen dira, baina azken silabaren azentua ahulagoa da [Txillardegik markatzen zuen moldeak da], eta kantuan hasten denean urtu egiten da azentua euskaraz. Hau da, gaztelaniazko hitzetako azentuak azentu musikalekin ezkondu behar dira, baina euskarazko hitzetakoak ez. Adibidez: “Laurogei urte gainean ditut (Txirrita) // ...makina bat urte / pasa dizkizute...” (Bilintx). Euskaraz errazagoa da kantuan egitea.

**Zu zeu ere irakasle ibili zara urte askoan. Iruditzen zaizu eskolan behar besteko garrantzia ematen zaiola ahozko jardunari?**

Ez; ez zaio ematen, ez delako sekula ezaugarrituta egon. Badugu eredu bat Euskaltzaindiak emandakoa (*Euskara batua ahoskera zaindua*. 87. araua), zeinak esaten digun euskara batuaren ahozkeraz zainduan letrak nola irakurri behar ditugun eta letren arteko topaketak nola lotu behar diren, baina horixe; besterik ez. Hamabost bat urte izango ditu arau horrek, eta orduz geroztik testuliburuaren eta landu da, baina arau horiek ez ziren nahikoa hizketa naturalera hurbiltzeko. Eta jakina, ezin gintezkeen egon arautu gabekoan gainean Euskaltzaindiak erabaki ofizial bat hartu zain, erdararen moldeak gaina hartzen ari zaizkigulako. Liburu honen lehenengo partea bera Euskaltzaindiaren arau horren interpretazioa da; arau horretatik abiatu gara, eta gehiago garatuta eman dugu. Bigarren partean, berriaz, euskal prosodia lantzen dugu eta hor hiru kontu daude: esaldien erritmoa, esaldien intonazioa eta azentua.

**Irudipena daukat azentu kontuetan huts egiten dugula gehien. Hala da?**

Bai, eta batez ere euskal abizenetan. Erdal eskola hartu dugu denok, denok ere soldaduskara joan gara, udaletxeetako idazkariak erdalduak izan dira... eta horregatik geuk ere euskaraz ari garenean joera handia dugu euskal abizenak erdaraz esateko. Adibidez: Hori zein da? Arakistain. Bada, ez. Euskaraz [A.ra.kis.tain] da. Ez da [Agirretxe], baizik eta [A.gi.rre.txe]; ez da [Gisasola], baizik eta [Gi.sa.so.la]; ez da [Gurru.txaga], baizik eta [Gu.rru.txa.ga]. Hainbeste urtean entzun ditugu erdaraz, barruraino sartuta dauzkagula. Berdina gertatzen da leku izenekin. Ez da [Anoeta], baizik eta [A.no.e.ta]. Ez da Barakaldo, baizik eta [Ba.ra.kal.do].

**Ainara Argoitia**



- Jose Ramon Zubimendi, 'Ortotipografia', 2004
- Juan Garzia, 'Kalko okerrak', 2005
- Elhuyar Fundazioa, 'Onomastika', 2005
- Alfontso Mujika, 'Letra larriak erabiltzeko irizpideak', 2008
- Andres Alberdi, 'Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuaren', 2009
- Jose Ramon Etxebarria, 'Zientzia eta Teknikarako Euskara Arautzeko Gomendioak', 2011
- Patxi Petrirena, 'Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak', 2011
- Juan Garzia, 'Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak', 2014
- Andres Alberdi, 'Ahoskera', 2014


## UDAL AURREKONTUAK 2015 MENDARO

### Mendaroko Udal aurrekontua 2014koa baino %3,58 handiagoa da: 2.254.000 eurokoa

**D**atorren urteko Mendaroko Udal Aurrekontua 2.254.000 eurokoa izango da, iaz baino %3,58 handiagoa. EHBilduren botoekin onartu zituzten aurrekontuak joan zen asteko osoko bilkuraren batzarrean. EAJko zinegotziak eta PSE-EEkoa abstenitu egin ziren bozketan. Sailka aztertuta, Hirigintza Sailak jasoko du diru gehien: 700.950 euro hain justu ere (aurrekontuaren %31). Gizartegintzarako izango da aurrekontuaren %18. Iaz, 382.100 jaso zituen Gizartegintza Sailak, eta 2015an: 415.120. Kulturarako 398.830 euro gorde dituzte, iaz baino 79.630 euro gehiago. Nekazaritzarako, bestalde, aurrekontu osoaren %2a izango da: 38.600 euro.

#### 2015eko aurrekontua, sailka

- ADMINISTRAZIOA: 549.000
- HIRIGINTZA: 700.950
- KULTURA: 398.830
- GIZARTEGINTZA: 415.120
- NEKAZARITZA: 38.600
- MAILEGUAK (Finantza gastuak+ finantza AKTIBOAK): 151.500



Inbertsioen atalean hainbat kontu aurreikusten ditu Udalak 2015erako. Inbertsiorik handiena argiteri publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko egingo dute. Erramone eta Kurutz Gain industriaguneetan, ospitalerako bidean eta Garagartza auzoetan led motako argiteria ezarri dute, eta datorren urtera begira herriko gainerako argiteria publikoan ere aldaketa hori egin nahiko lukete. 200.000 euroko inbertsioa izango dela aurreratu du Udalak. Horrez gain, beste hainbat kontu ere badira inbertsioen atalean nabarmentzekoak. Aipagarrienak, beharbada, Garagartza auzoko irisgarritasuna hobetzeko egin asmo duten obra –Garagartzatik plazara pasabidea edo igogailua egitea aztertzen ari dira– eta herriko zakarrentziak aldatu eta hondakinak gaika biltzeko edukiontzia jartzea. Era berean, Etxeberri plazan dagoen haurrentzako parkea berriro asmo dute, eta landaguneetan zehaztu ez dituzten hainbat hobekuntza lan egin. Inbertsio horien zenbateko handi bat diruzaintzako 2014ko diru gerakinarekin egingo dira.

#### Maite Maiorekin solasaldia iragarri du Arnok hilaren 18rako

Maite Maiora herriko korrikalariak hitzaldia eskainiko du hilaren 18an udaletxeko pleno aretoan. Arno guraso elkarteak antolatu du solasaldia eta 18:30ean hasiko da. Mendaroko haur eta gazte guztiei zuzendutako ekintza izango da.

#### Haur krosa antolatu du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak hilaren 20rako

Hirugarren urtez jarraian, Eguberrietako Haur krosa antolatu du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz. Hilaren 20an izango da, Mendarozabalén, 17:00etan, eta izenemateak lasterketa hasi baino orduerdi lehenago egingo dira han bertan. Izenematea doan izango da eta partehartzaile guztiek domina eta gozoki poltsa bana jasoko dituzte bukaeran. 2003. urtetik 2009ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta lasterketak adinka egingo dituzte.



# Kontzezio Azoka eguna: bustia, baina beroa

Maite Maiora herriko korrikalaria omendu zuen zapatuan Mendaroko Udalak

Eguraldi zakarra egin zuen benetan joan zen zapatuan goiz goizetik, baina euriari, hotzari eta une batzuetan kaskabarrari ere kontra egin, eta kalera irten ziren mendarorak Kontzezio Azoka egunerako antolatutako ekintzez gozatzera. Goizean, ohi baino jende gutxiago ibili zen azoka bueltan, baina eguerdirako hasi zen itxura hartzen frontoi ingurua. Hori bai, eguraldiagatik lekuz aldatu behar izan zituzten zenbait ekintza, trikiti-eskolako dantza-jaialdia, esaterako. Egitarau osoari eutsi zitzaion, hala ere, eta arratsaldean omenaldi beroa eskaini zioten mendarorrek Maite Maiora herriko korrikalariari, herri-kirol saioa hasi aurretxean. Argazki gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus) helbidean.



# GUSTAVO BARRENETXEA

Xake jokalaria

**Iaz hartu zuen parte estreinakoz Gustavo Barrenetxeak (Elgoibar, 1971) Nazioarteko Xake Txapelketan, eta aurten ere hemen izango da, munduko xakelari onenekin lehian. Elgoibarkoa izanagatik ez zioten erraz jarri, baina hala ere, aho-gustu ona utzi zion txapelketak, eta aurten ere ilusioz beterik datortxapelketara. Bihar hasita, hilaren 19ra bitartean jo katuko dituzte partidak udaletxeko pleno aretoan.**

Ainhoa Andonegi

**“Xakean azkenaurreko hutsa egiten duenak galtzen du”**



**Iaz hartu zenuen parte estreinakoz Elgoibarren. Nolako esperientzia izan zen?**

Esperientzia oso interesgarria izan zen. Nire mailarekin horrelako maisu handiekin lehiatzeko aukera izatea sekulakoa da. Eskerrak eman nahi dizkiet nire parte-hartzea posible egin dutenei.

**Nolako maila dauka Elgoibarko txapelketak?**

Oso maila altuko jokalariek hartzen dute parte Elgoibarren, eta txapelketa gogorra da. Bederatzi partida izaten dira, zein baino zein gogoragoak. Maila gutxien nik daukat, beraz bederatzi partida ni baino maila altuagoa dutenen kontra jokatzeko hobetzeko eta ikasteko aukera ematen dit. Esperentzia hartzeko eta hobetzeko aukera handia ematen du horrek. Euren arteko partidetan maisuen arteko tablak erabiltzen dituzte, eta nolabait esateko, atsedena hartzen dute, baina niri ez didate atsedenek ematen. Xakean kontzentrazioa oso garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da deskantsatu eta berriz kontzentratzeko gaitasuna edukitzea, ezin delako lau-bost orduan kontzentrazio maila altuena mantendu. Aurten sufritzeko prest noa. Zailena da partida bat galdu ostean hurrengo partidarako prestatzea. Indarberritzeko modurik onena partida batetik bestera gilda bat jatea da.

**Nola prestatu duzu txapelketa?**

Iaz nahiko berandu jakinarazi zidaten parte hartuko nuela eta ez nuen izan txapelketa prestatzeko denborarik. Aurten hobeto prestatuta noa. Hala ere, normalena izango litzateke berriz ere azkena geratzea, baina Elgoibarko txapelketa honetan ni baino askoz hobekak direnak ere geratu izan dira azken postuan; norbait izan behar da azkena. Dena dela, galtzeko modu desberdinak daude. Ez da gauza bera partida txar bat jokotuta galtzea, ala joku izugarria eginda galtzea. Iaz partida asko galdu nituen, baina sormen aldetik partida interesgarriak egin nituen. Bi

partida nahiko modu txarrean galdu nituen, baina beste bostetan borroka handia izan genuen eta irabazteko aukera garbiak izan nituen. Beste bat irabazi eta beste bat berdindu egin nituen. Aurtengo jokalarien artean Kevin Spraggett kanadiarra oso kontuan hartu beharko dugu: munduko txapeldun izateko hautagaia izan da, eta oso gogorra da.

**Nola entrenatzen da xakean jokatzeko?**

Bakoitzak bere modua dauka, baina bereziki partida batek dituen hiru fase hartu behar izaten dira kontuan: hasiera, erdi-jokoa eta amaiera. Oso fase desberdinak dira: lehenengoan memoria da garrantzitsua; joko-erdian kontzeptu eta kalkuloak hartu behar dira kontuan, eta amaiera teknika kontua da. Erlojuaren kontra jokatzeko dugu eta denbora hori norberak neurtu behar izaten du. Bukarako fasean denboraren kontra jokatzeko dugu gehienetan, eta hor igartzen da maisuen teknika, azken fasean ikusten dira jokalarien arteko desberdintasunak. Segundu gutxi batzuekin jokatzeko dugu jokaldiak egiteko, eta fase horretan esperientzia eta lasaitasuna oso garrantzitsuak dira.

**Joko erasokorra da zurea. Zer esan nahi du horrek?**

Futbola bezalakoa da xakea, batzuek erasoan jokatzeko dute eta beste batzuk defentsan. Niretzako xakea zaletasun bat da, eta betidanik gustatu izan zait sormen apur batekin jokatzeko. Erasoa dut gustuko. Xakean jokalaria estrategiko eta dinamikoak bereizten dira, eta ni estrategikoa naiz ni baino maila gutxiago dutenen kontra, baina batez ere, dinamikoak naiz. Xake tableroan kaosa bilatzea gustatzen zait. Mikhail Tal maisu handiak esan zuen bezala, arerioa baso sakon ilun batera eraman behar da; 2+2 emaitza bost den gunera, eta irteera bi lagunentzako estuegia den tokira. Azken batean horrek esan nahi du maisu handi baten teknikaren kontra galdu egingo duzula, edo asko jota, berdindu. Hortaz, erasoan jokatzeko tableroa nahastean saiatzen zara, ea na-

haste horren barruan aukeraren bat suertatzen den. Iaz ez zidaten utzi nire jokoa egiten: nire aurkariak zain geratu ziren, eta kontra-erasoan jokatu zuten. Ni baino teknika hobea zuten, ezer gutxi neukan egiteko. Denbora aurrera joan ahala, azkarrago pentsatu behar da, eta huts-egite gehiago egiten dira. Erasoaren arazoa da huts egiten baduzu, kontra-erasoa oso gogorra izaten dela. Arriskutsua da, baina niri joko hori gustatzen zait. Nire partidak ez dira sekula aspergarriak izaten. Aurten ere susmoa daukat ez didatela utziko nire jokoa egiten, horregatik teknika landu dut bereziki aurtengo txapelketarako.

### Zein xakelari gustatzen zaizkizu?

Beti mirestu izan ditut Kasparov, Mikhail Tal, Alekhine edo Bobby Fischer bezalako jokalariek eta haien jokoa imitatzen saiatu izan naiz. Niretzat artistak dira; sormen eta imajinazio handiak dituzte eta arriskuak hartzen dituzte jokoan. Beste batzuk bestelako jokoa egiten dute eta ez dira horren ikusgarriak. Magnus Carlser egungo munduko txapelduna, esate baterako, oso teknikoa da. Izugarriko teknika ona dauka eta makina bat izango balitz bezala jokatzen du, sentimendurik gabe. Oso hotza da, eta horrelakoen kontra irabaztea ia ezinezkoa da. Xakean esaten da irabazten duela azken aurreko hutsa egiten duenak. Pertsonak gara, eta huts egiteak normalak dira. Hemendik urte batzutura oso desberdina izango da xakea, jokatzeke era aldatzen ari delako. Sentimenduak ez dira onak, eta errusiar eskolan, esaterako, sentimenduak albo batera uzten irakasten dute. Emozioek pista asko ematen dituzte eta urduritasuna edo segurtasun eza uzten dituzte agerian.

### Zein desberdintasun dago pieza zuriekin ala beltzekin jokatzearen artean?

Ez dauka zerikusirik. Futboleko adibide bat jarriko dut berriz ere: futboleko garrantzitsuen golak sartzea da, eta horretarako baloia edukitzea ezinbestekoa da. Xakean xake-mate egitea da garrantzitsuen. Esan daiteke pieza zuriek daukatela baloia, partida eurek hasten dutelako. Beltzak lehenengo baloia berreskuratuta behar du, eta gero gola sartu, eta zuriak zuzenean sartu dezake gola. Hori da diferen-

tzia. Iaz bost partidetan tokatu zitzaidan pieza beltzekin jokatzea, eta hori maisu handi baten kontra izugarri igartzen da.

### Zer da zuretzat Elgoibarren jokatzea?

Oso berezia da. Behin partida hasi eta kontzentratua zaudenean non zauden ere ahazten zaizu, baina begirada altxatu eta leihotik herriko plaza ikustea eta elizako kanpaien hotsa entzutean konturatzen zara herrian zaudela, eta hori oso polita da. Horrez gain ikusleen animoak ere bereziak dira norberaren herrian, eta kalean ere lagunak babesa erakusten dute. Xakean animoak ez dira futboleko bezalakoak, baina begirada edo keinu batek asko esaten du.

### Umetan hasi zinen xakean, eta garai hartan, Kasparov maisu handiaren kontra jokatzeke aukera izan zenuen. Nola gogoratzen duzu?

Atzo izango balitz bezala gogoratzen dut. Donostian jokatu genuen, eta partida oso txukuna egin nuen. 25 pertsona ginen bere kontra. Ni azken seiren artean geratu nintzen eta peoi bat irabazi nion. Baina ni umea nintzen, lehiakorra, baina jakinduria falta zitzaidan, eta berak ez zidan aukerarik eman. Gaur egun posizio hori izango banu, ez dut uste galduko nukeenik. Gaur egun ez naiz horren lehiakorra, baina jakinduria gehiago daukat. Umetako lehiakortasuna egungo jakinduriarekin uztartzea izango litzateke onena.

### Lanbidez musikaria, eta afizioz, xakelaria zara. Ba al dute zerikusirik?

Biak dira komunikazio tresnak. Herrialde bateko hizkuntza jakin ez arren, xakea edo musikaren bidez komunikatzea posible da, mugimenduak denontzat berberak direlako. Xakeak zientzia, artea eta jokoa biltzen ditu. Zientzia atala interesgarria da, baina niri bereziki, artea gustatzen zait. Hau da, partida jokatzean zure aurrean dagoena ez da arerioa, baizik eta koautorea. Nolabait esateko bi jokalarien artean osatzen da obra, eta gauza polit bat sortzeko aukera ematen du. Jokoa falta zait oraindik. Gutxi jokatzen dut eta praktika falta zait. Maisu handi horiek xaketik eta xakerako bizi dira. Partida pila bat jokatzen dituzte, klaseak ematen dituzte... Eta nik egu-nero pare bat ordu sartzen ditut, baina ez da nahikoa.

## Zuri esker



garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.



mendekotasuna duten 26.472 pertsona artatzen dituga.

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

azken bi urteotan 1.000 lagun gehiago matrikulatu da euskaltegietan.



Gipuzkoa hondakinen % 42 birziklatzen ari da eta 2016an % 60ra iritsiko da.



**Gipuzkoa berria egiten ari gara.**  
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



# **Dagoeneko hasi gara Elgoibarko Izarrak antolatuko duen tonbola osatzeko opariak jasotzen! Eskerrik asko zuen parte-hartzeagatik!**

Aurreko urteko arrakastaren ostean, aurten ere Elgoibarko Izarrak tonbola jarriko du abenduaren 24an Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean, BARRENEN eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenok, deitu telefono honetara (943 741 626) edo idatzi ([elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)) posta elektronikora **abenduaren 15a baino lehen**. Datorren astean parte hartuko duzuen guztien zerrenda kaleratuko dugu. Jarraian orain arte tonbolan laguntzeko prest azaldu direnen izenak dituzue:

*Iban Urizar / Sinuose / Uxue Alberdi / Jasone Osoro / Maite Rementeria / Iñigo Lariz / Jesus Mari Makazaga / Unai Villena / Bidatz Azpiazu / Edurne Askasibar (Bitxi Bitxi) / Txomin Mujika / Napoka Iria / Emilia Nogales / Andres Alberdi / Joxe Mari Agirretxe "Porrotx" / Zaloe Arnaiz / Danele Sarriguarte / Izaro Etxegibel / Irati Agirreazaldegia / Zuhaitz Gurrutxaga / Felix Etxeberria / Amaia Erkizia (Magi Bitxiak) / Jon Gerrikabeitia / Jon Gurrutxaga / Jairo Berbel / Maite Maiora / Lurdes ileapaindegia / Soraya estetika / Garbiñe estetika / Oin Berri podologia zentroa / Beitia Arriola hortz klinika / Aldaz hortz klinika / Softlan informatika / Mapfre aseguroak / Uzuri optika / Egur / Haritz euskal dantza taldea / Ikasi mobilteknika / Zezenbide autoeskola / Azkue argazki denda / Soarte*

*argazki denda / Leibar etxetresna eta elektrodomestikoak / Bire etxetresna eta elektrodomestikoak / Garate jantzi denda /*

*Ostruka jantzi eta oinetako denda / Moma jantzi denda /*

*Iriondo kirolak / Skandalo / Maidagan jantzi*

*denda / G&M jantzi denda / Agirre sastre-*

*ria / Textil Hogar / Sara jantzi denda /*

*Kontxi haurren jantzi denda / Astigarra*

*kirolak / Luvik oinetakoak / Pitxintxu / Ize*

*liburu denda / Eroski / Ziarda harategia /*

*Arantza eta Marian fruta denda / Txilarre*

*Barazkiak / Amaia fruta denda / M<sup>a</sup> Angeles fruta*

*denda / Zabala fruta denda / Caramel goxo denda*

*/ Amagoia goxo denda / Armueta*

*harategia / Arkupe okindegia / Doña*

*Mercedes / Eizagirre okindegia / Fotero okin-*

*degia / Ibarrenea okindegia / Mari harategia / Patxi*

*harategia / Lerun jatetxea / Iturri taberna / Orbea Taberna /*

*Iriondo taberna / Lanbroa taberna / Tantaka taberna / Mahats ardan-*

*degia / Usua kafetegia / Belaustegi jatetxea / Ibai-Ondo erretegia /*

*Gautxo jatetxea / Gabi jatetxea / Ilunpe taberna / Jose Mari Ondarza /*

*Altzola Berazeta baserria / Muruamendiaraz gozotegia...*

**Elgoibarko Izarraren aldeko  
TONBOLA**

**Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara,  
Kalegoen plazan**

**Tonbolako gure lagunak**

**Erretratu zaharra****1953**

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek ekarri du BARRENERA. 1953. urteko erretratua da, eta Deban aterata dago, hondartzan. Garai hartan ere bazegoen hondartzara joateko ohitura, eta erretratuan ageri diren horiek ere egunpasa joan ziren Elgoibartik kostaldera. Gogora ditzagun zeintzuk diren:

**Ezkerretik eskumara:** Josune Ormaetxea, Miren Agirregomezkorta 'Beraseta' eta Laura Egurrola.



# 4.784

Pertsonentzako laguntza sozialak

**Zuri esker**

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.

**Gipuzkoa berria egiten ari gara.**

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



## Elgoibarko Izarraren bertso-saiorako sarrerak hilaren 19ra arte erosi daitezke

Abenduaren 26an izango da jaialdia, Herriko Antzokian

**E**guberrietarako puntako bertso-jaialdia antolatu du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Astelehenean jarri zituzten salgai Elgoibarko Izarraren bulegoan (Ubitarte kalea, 4) eta 19ra arte egongo da erosteko aukera, baldin eta ez badira aurretik agortzen. Sarrerarik gelditzen bada, egunean bertan Herriko Antzokiko lehiatilan jarriko dituzte salgai. Elgoibarko Izarrako bazkideek zortzi euro ordaindu beharko dute sarrerako eta gainerakoek hamar euro.

Bertso-jaialdia abenduaren 26an izan



go da, Herriko Antzokian, 22:15ean hasita. Uxue Alberdi bertsolari elgoibartarra arituko da gaiak jartzen eta Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Jon Maia eta Anjel Mari Peñagarikano etorriko dira kantura.

### Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren saiorako sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai

Urtarrilaren 2an etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarrera, eta emanaldirako sarrerak astelehenean, abenduaren 15ean, jarriko dituzte salgai. Bi saio eskainiko dituzte Herriko Antzokian: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak Kutxaren bidez jarriko dituzte salgai, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean. Sarrerak 10 euro balio ditu helduentzat eta 8 euroan eskuratu ditzateke haurrek. Gehienez lau sarrera erosi ahal izango ditu pertsona bakoitzak.

### 'Olentzero eta zaku magikoa' ikuskizuna, etzi, Herriko Antzokian

*Olentzero eta zaku magikoa* familia antzerkia eskainiko du Kalikak domekan, Elgoibarko Herriko Antzokian. Antzezlanean, Olentzero bere zaku magikoa galtzen du, eta ondorioz, asko zailduko zaio Eguberrietako oparien banaketa. Bila ari dela, hainbat pertsonaierekin topatuko dira basoan Olentzero eta Mari Domingi. 16:30ean hasiko da saioa, eta sarrerak lehiatilan bertan eskuratu beharko dira.



## Domekan, abenduaren 14an, egingo dute jaiotza lehiaketa Elgoibarren



lazko irabazleak: Ainhitze eta Eider Plaza

Parrokiako Katekesiak antolatuta, haur eta familientzako Jaiotzen 28. Lehiaketa egingo dute datorren domekan, hilaren 14an, Elgoibarren. Jaiotza lehiaketan parte hartu nahi duten guztiak San Bartolome parrokiako arkupeetan aurkeztu beharko dituzte lan guztiak domekan, abenduaren 14an, 11:00etan. Aurrez, baina, izena eman behar da, eta bi aukera daude horretarako: [elgoibarkojaiotzak@gmail.com](mailto:elgoibarkojaiotzak@gmail.com) e-postara idatzita edo zapatuan, 11:30etik 13:30era, katekesiko lokalera agertuta. Jesusen jaiotza irudikatuko duten figurez osatuta egon beharko dute jaiotzek eta nahi diren materialak erabili ahal izango dira. Neurri dagokionez, gehienez ere 75 x 40 zentimetrokoak izan beharko dute. Epaimahaikideek domeka eguerdian jakinaraziko dituzte zeintzuk izan diren jaiotza irabazleak. Hala ere, jakinarazi dute jaiotzak egin dituzten guztiak jasoko dutela oparia. Gero, Zubiaurre-Murua familiak lagatako lokalean jarriko dituzte jaiotzak ikusgai, Errosario kaleko 7an, urtarrilaren 7ra bitartean.

laz, 42 umek hartu zuten parte lehiaketan eta aurkeztutako lanen artean Ainhitze Plazak eta Eider Plazak aurkeztutako jaiotza nabarmendu zuen epaimahaiak.



# ‘Potologuak’ umorezko bakarriketa saioa eskainiko dute gaur Elgoibarren

Herriko Antzokian izango da, 20:30etik aurrera



**B**odologuak saioarekin lortutako arrakastak bultzatuta, bigarren bakarriketa saioa estreinatu zuten Egoitz Lasak, Nagore Aranburuk eta Mikel Pagadizabalek, *Potologuak*, eta Elgoibarrera datoz gaur lan horrekin. *Bodologoak*-en jarraipena da *Potologuak* antzezlan, “barre algarak sortzeko helburuz idatzitakoa”.

Umore dosi handiko bakarriketak eskainiko dituzte, eta tartean galdera hauei eta antzeko beste askori erantzuna bilatzen saiatuko dira: Legebiltzarreko zein bileratan erabaki zen batukada euskalduna dela? Hirugarren seme-alaba aurreko bien arropa birziklatzeko enkargatzen al da? Medikuarengana arropa garbiarekin joaten ez denari zer egiten diote?

Herriko Antzokian izango da, 20:30ean. Sarrerak [www.kutxa.es](http://www.kutxa.es) bidez eta Kultur Etxean ere ere izan dira salgai, baina gaur lehiatilan bertan ere erosi ahal izango dira.

## Jon Gurrutxagak ‘Hitz lauz’ lana aurkeztuko du hilaren 21ean Elgoibarren

Sinuosek antolatuta, kontzertua eskainiko du Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak abenduaren 21ean, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. *Hitz lauz* diska atera berri du Gurrutxagak, eta herritarren artean aurkeztuko du orain.

## Zientzia eta arte modernoari buruzko tailerra antolatu du Haizeak astelehenerako

Haizea emakume elkarteak antolatuta, *Zientzia eta arte modernoa* izenburuko tailerra izango da astelehenean Elgoibarko Kultur Etxean, 17:00etatik 19:00etara. Carmen Agirrek zuzenduko du tailerra.

## Elgoibarko Errege magoen desfilean parte hartzeko izenemateak, egunean

Errege magoen desfilean parte hartu nahi dutenek egunean, abenduaren 18an, eman beharko dute izena, parrokiari, Kristau-ikasbideko lokaletan. Etorri ahala hartuko dituzte izenak, 17:00etatik aurrera.

Mugi txartelaren erabiltzaileak

# %64



## Zuri esker

garraio publikoa gipuzkoarren %64ren onurarako da.

## Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

 Gipuzkoa  
ARANDA

## Sanloren eskubaloi eskolak hainbat ekintza antolatu ditu Eguberrietarako

Gaztetxoak eskubaloira erakartzea da klubaren helburua

**E**txeko txikienak eskubaloian barneratzeko hainbat ekintza antolatu ditu Sanlok Eguberrietarako. Besteak beste, Unai Arrieta (Naturhouse Logroño ASOBAL taldeko jokalaria ohia), Matxalen Ziarsolo eta Maialen Mugica (Bera Bera taldeko jokariak) eta Reyes Carrere (Bera Bera...) etorriko dira Elgoibarrera gaztetxoekin entrenamendu saioak egitera. Interesatuak 22 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko. Aste honetan bertan banatuko dituzte izenemate orriak ikastetxeetan, eta bertan azalduko dituzte izena emateko jarraitu beharreko pausoak. Izena emateko azken eguna abenduaren 22an izango da. Dena dela, [sanlolatxo@gmail.com](mailto:sanlolatxo@gmail.com) helbidera idatzita eskuratu daiteke informazio gehiago.



### Egitaraua

- Abenduak 23: Entrenamendua (11:30-13:00), Gojko Vucinic-Juanma Lopez.
- Abenduak 29: Entrenamendua (11:30-13:00), Unai Arrieta.
- Abenduak 30: Entrenamendua (11:30-13:00) Matxalen Ziarsolo-Maialen Mugica.
- Abenduak 31: Entrenamendua (11:30-13:00).
- Urtarrilak 2: Bilboko PINera Irteera
- Urtarrilak 3: Entrenamendua (10:30-12:00), Reyes Carrere.
- Urtarrilak 5: Partidak (9:30-12:00).

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Aloña Mendi 2 – Haundi 1 (Pref.)  
Elgoibar 11 – Alle Punta 0 (Erreg.)  
Eibartarrak 0 – Elgoibar 5 (Kad. B)

### ARETO FUTBOLA

San Juan 6 – Concepto Egile 3 (2B)

### ESKUBALOIA

Ereintza 22 – Alkorta Elg. 24 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 19 – Euskadiko selekzio 23 (Kad. mut.)  
Astigarraga Elg. 11 – Euskadiko selekzio 20 (Kad. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 13

10:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Inf. Txiki)  
12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Inf.)  
16:00 Elgoibar – Mondragon (Ohoiezko jub.)  
18:00 Elgoibar – Burumendi (Kad. B)

#### Domeka, 14

11:30 Elgoibar – Amaiak Bat (Aleb.)  
12:30 Elgoibar – Arrasate (Aleb.)  
16:30 Haundi – Aretxabaleta (Pref.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

#### Domeka, 14

12:30 Concepto Elg. – Zierbena (2B)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 8

16:00 Tecnifuelle Elg. – Bergara K.E. (Sen.mt.)  
17:30 Tecnomeca Elg. – Aloña Mendi (Kd.mt.)  
19:00 Cometel Elg. – Aloña Mendi (Jub.nesk.)

#### Domekia, 9

12:30 Pneumax Elg. – Amenabar Zatz (Jb.mt.)

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako Pala txapelketa

#### Barixakua, 12

20:15 Lagunak 1 – Lagunak 2 (2. mailako nag.)

## Euskal derbia jokatu zuten joan zen domekan, Shanghain



Iñigo Otero goiko ilaran, erdian.

Shanghaiko Euskal Etxeak antolatuta euskal derbia jokatu zuten joan zen domekan Txinako hiriburuan bizi diren hainbat euskaldunek, tartean Iñigo Otero elgoibartarrak. Realeko eta Athletic-eko elastikoak jantzi, eta futbol partida jokatu zuten. Iñigok Realeko taldean jokatu zuen, eta 1-0 irabazi zieten zuri-gorriei. Iñigo beraren aita "pozik" agertu da, etxean denak realzaleak direlako. Domeka honetan jokatuko dute Realak eta Athletic-ek lehen mailako euskal derbia Anoetan.

# Idi-pare gazteen probak antolatu dituzte Eguberrietarako

Sigmako probalekuan izango dira saioak

Idi-pare Gazteen II. Txapelketa antolatu du Sigma Probaleku Elkarteak Eguberri jaietarako. Hiru saio izango dira guztira: abenduaren 23an izango da lehenengoa, hilaren 26an bigarrena eta azkena hilaren 27an, Gabon Zahar feria ospatzen den egun berean, hain zuzen ere. Saio guztiak 22:00etan hasiko dira, eta sarrerak 15 euro balioko du. Sigmako probalekuaren dinamika sustatzeko sortu berri dute Sigma Probaleku Elkarteak. Joseba Arrizabalaga Udaleko zinegotzia eta landa auzoetako zereginen arduraduna da elkarteko presidentea. Urtarrilaren 4an, bestalde, astoa eta gizakiaren arteko dema ikusteko aukera izango da. Otsourtiako astoa zazpi gizoneko taldearen kontra arituko da. 550 kiloko harriarekin plaza gehien egiten duenak irabaziko du.

## Eider Iriondok hartuko du Morkaiko mendizale elkarteko presidente kargua

Azken urteotan Andoitz Agirregomezkortak bete du presidente kargua Morkaiko mendizale elkartean, baina aurrerantzean Eider Iriondok beteko du kargu hori. Beste hainbat zereginen artean, bazkide kanpaina jarri dute martxan. Interesatuak 943 740 297 telefonoan edo [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzita egin dezakete bazkide txartela. Morkaikoko bazkideek %10eko deskontua izango dute mendi materiala erosterakoan, Morkaikoren laguntzailak diren dendetan.



## Urkulura irteera domekan

Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean, Urkulura irteera antolatu du Morkaikok domekarako. Autoz joango dira Eskoriatzara, eta handik, oinez egingo dute Urkuluko urtegirako bidea. 11 kilometroko ibilbidea izango da, eta 150 metroko desnibel positiboa izango du. Ume eta gurasoentzako irteera da, eta ume bakoitzak arduradun batekin joan beharko du. 9:30ean irtingo dira, Mintxetako apartamentuetatik.

## Mintxetako taberna

Mintxetako Taberna kudeatzeko baldintza plegua [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) atarian argitaratu du Kirol Patronatuak. Kontratua urtebetekoa izango da, 6 urtez luzatzeko aukerarekin. Ordaindu beharreko gutxienezko prezioa: 950 €/hileko, BEZ barne. Abenduaren 18ra arte aurkeztu daitezke proposamenak kiroldegian.

# 1.711

Enpresa berri



## Zuri esker

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

## Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



**ETXEBIZITZAK**

● Pisua alokairuan Santa Ana kalean. Bi logela, terraza handia, egongela. Altzariekin. Igogailua eta ganbara ditu. ☎ **669 598 769**

**LANA**

**ESKAERA**

● Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero edo pintore lanetarako. Ordutegi malgua.

☎ **602 850 239**

● Emakumea lanerako prest. Interna. Adinekoak zaintzen esperientzia handia.

☎ **631 141 183**

● Emakumea etxeko lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Gidabaimenarekin.

☎ **631 343 232**

● Emakumea edozein lan egiteko prest: garbiketa lanak, umeak edo adinekoak zaindu... Interna edo orduka.

☎ **632 767 696**

● Emakumea lan bila: etxeak garbitu eta umeak edo adinekoak zainduko nituzke. Ordutegi malgua.

☎ **943 748 899 / 685 724 861**

● Pertsona bat eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest.

☎ **638 338 816**

**PARTIKULARRAK**

● Unibertsiterako sarbide proba prestatzeko klase partikularrak hartuko nituzke, bereziki, gaztelania eta matematika eskolak.

☎ **617 053 329**

● Klase partikularrak ematen ditut: Batxilergoko matematika, DBH, LH eta kontabilitatea, ekonomia...

☎ **666 042 710**

**BESTELAKOAK**

● Bigarren eskuko autoa hartuko nuke opari. Transferentzia gastuak neuk ordainduko nituzke.

☎ **602 850 239**

● Norbaitek soberan baldin badauka, gustura hartuko nuke telebista bat.


☎ **603 221 309**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**


- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.


Eguberrietako ekintzetan izena emateko azkenengo eguna: abenduaren 15. Plaza mugatuak




Abenduaren 17an amaituko da Eguberrietako ekintzetan izena emateko epea: Lasergunea, egonaldia, disko-gaua...



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**







**Oraindik eraikitzen ari ziren etxebizitza bat erosteko erreserba egin nuen duela urtebete. Sinatu nuen egunean, 6.000 euro ingresatu nizkien kontuan. Hilabete batzuk geroago, etxea erosteko hitzarmen pribatu bat sinatu nuen enpresa eraikitzailearekin. Hitzarmen horretan, bazeen klausula bat zeinean esaten zen eroslea egin beharko zela Obra Bukaerako Ziurtagiriaren, Bizitzeko baimen edo bizigarritasun-zedularen eta gainerako administrazio-agirien gastuen kargu. Erreserba egin nueneko hitzarmenean ez zen halakorik agertzen, baina, eta jakin nahiko nuke ea behartuta nagoen gastu horiek ordaintzera. Hitzarmeneko klausularen batekin ados ez bazaude, hobe da ez sinatzea, sinatuz gero beti egon daitezkeelako arazo judizialak. Sinatua duzunez, aukera daukazu klausula hori inpugnatzeko, neurritz kanpoko dela arrazoituta. Izan ere Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Babeserako Legearen arabera, fede txarrez eta kontsumitzailearen kalterako zehazten diren klausula guztiak dira neurritz kanpokoak, hitzarmen horretatik ondorioztatuta daitezkeen eskubideen eta betebeharren artean desoreka handia egoten delako. Neurritz kanpoko klausula bat baliogabetzeak, normalean, sinatutako kontratuaren parte bat baliogabetzea dakar.**

**AHOLKUA: Etxearen erreserba egiteko diru bat ematen dugunean, ondo lotuta utzi behar dugu diru hori banku-abal bidez itzuliko zaigula, era horretan kontratuan adostutako eta jasotako baldintzak betetzen direla bermatzeko.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



• Zorionak, **Ifigo**, gaur 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.




• Zorionak, **Ibai**, hilaren 3an 7 urte bete zenituelako. Elgoibarko senideen partez, muxu asko.



• Zorionak, **Maider**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko guraso, aittita-amama eta osabaren partez.



• Zorionak, **Beñat**, gaur 9 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoen partez.



• Zorionak, **Markel**, igandean 2 urtetxo beteko dituzulako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, bihar 2 urtetxo egingo dituzulako. Beti bezain alai eta irribartsu jarrai ezazu. Muxu handi bat familia osoaren partez.



• Zorionak, **Beñat**, 4 urte beteko dituzulako. Patxo bat, etxekoan eta bereziki lehengusina Maddi, Garazi eta arreba Malenen partez.



• Zorionak, **Hegoa**, asteartean 4 urte bete zenituelako.




• Zorionak, **Ane**, abenduaren 2an 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat Maddiren, aita eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Urko**, asteartean 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Olhan eta Maria**, abenduaren 16an 3 eta 12 urte beteko dituzuelako. Familia osoaren partez, eta bereziki Danel eta Jareren partez.



• Zorionak, **Iker Espiga**, zure zortzigarren urtebetetzearan. Zuretzako hain berezia den egun honetan, zorionak gurasoen, aiton-amonen eta anaia-aren partez. Jarraitu orain arte bezain jator!



• Zorionak, **Nerea eta Julen**, Ondo-ondo pasa zuen urtebetetze egunetan. Muxu potolo bana, etxekoan partez.

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK	ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK	Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako)
Erretratu bakarreko agurra: <b>4'50€</b>	Erretratu bakarreko agurra: <b>3'50€</b>	baino lehen ekarri behar dira
Argazki bikoitza: <b>7€</b>	Argazki bikoitza: <b>6€</b>	BARRENeko bulegora,
Hirukoitza: <b>9€</b>	Hirukoitza: <b>8€</b>	edo
Hiru lagunetik gorako taldeak: <b>15€</b>	Hiru lagunetik gorako taldeak: <b>12€</b>	<b>barren@elgoibarkoizarra.com</b>
		e-postara bidali.

Birziklatze tasa

**%42**



### Zuri esker

Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.

**Gipuzkoa berria egiten ari gara.**

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



## 12 barixakua

### **Bakarriketa**

20:30 'Potologuak'

Txintxeta produkzioak aurkeztuta, Herriko Antzokian.

## 13 zapatua

### **Xakea**

10:00 Eskola Kirola

Elgoibarko Eskola Kirola elkarteak eta Zubi Ondo elkarteak antolatuta, udaletxeko pleno aretoan.

### **Nazioarteko xake txapelketa**

12:00 Aurkezpena

Udaletxeko pleno aretoan jokatu da xake txapelketa, hilaren 19ra bitartean.

### **Kirola**

16:00 Igeriketa

Kirol Patronatuak antolatuta, igeriketa erakustaldia egingo dute, Olaizaga kiroldegian.

## 14 domeka

### **Eguberriak**

10:30 Jaiotza lehiaketa

14 urtetik beherakoentzako lehiaketa. Sari banaketa meza ostean egingo dute, Parrokian.

### **Antzerkia**

16:30 'Olentzero eta zaku magikoa'

Kalika produkzioak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 15 astelehena

### **Tailerra**

17:00 Arte tailerra

Carmen Agirrek gidatuta, zientzia eta garai modernoa aztertuko dituzte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### **Hitzaldia**

18:30 'Nola lagundu seme-alabei?'

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 16 martitzena

### **Tailerra**

18:00 Literatura

Haizeak antolatuta, Stefan Zweig idazlearen *Maria Antonieta* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

### **Musika**

19:00 Musika eskolako jaialdia

Ameikutz musika eskolako ikasleen jaialdia, San Agustin kulturgunean.

### **Aurkezpena**

19:30 2015eko egutegia

Elgoibarko Udalak 2015eko egutegia aurkeztuko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 17 eguaztena

### **Aurkezpena**

19:00 'Euskaldunak

Elgoibarren'

Elgoibarko Izarrak aurkeztuko du, Kultur Etxeko sotoan.

## 18 eguena

### **Eguberriak**

19:00 Gabonetako jaialdia

Ikastolako DBHko ikasleen jaialdia, Herriko Antzokian.

### **Aurkezpena**

19:00 'Elgoibarko hiri

bilakaera'

Luis Ulazia arkitektoak aurkeztuko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### **Kirola**

21:00 'Skandinabike'

Julen Salaberria, Mikel Arosa eta Eñaut Izagirrek Norvegian bizikletan egindako oporren berri emango dute, Morkaikoren mendi emanaldien barruan. Musika Eskolan.

### **BOTIKA ORDUTEGIAK:**

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### **GUARDIAK**

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
12 Barrenetxea 13 Ibañez Goizez: Etxeberria 14 Ibañez 15 Garitaonandia 16 Etxeberria 17 Fernandez 18 Yudego 19 Zabaleta	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## **ZINEA** (HERRIKO ANTZOKIAN)

### «Relatos salvajes»

12, barixakua: 22:15

13, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

14, domeka: 19:00

15, astelehena: 21:30



Sara

Rosario, 14 - Tel.: 943 743 555 - Elgoibar



Festarako jantzietan  
%20eko beherapena



IRIONDO KIRROLAK

San Bartolome 27, 30, 943 743 45, E-20084

MIKRO  
X-TREME



Micro etxeko patineteak  
74,90 eurotik aurrera!

CASA ASTIGARRAGA

Errosario, 16-18

Tel.: 943 743 268

Adidas FINALE baloia  
20€

Euskal selekzioko PACKa  
kamixeta, praka eta galtzerdiak  
70€

GBOARD patinetea  
89€

ROXY etxeko motxila + estutxea  
30€ eta 12€



ABENDUAK  
KIVUK  
KIVUK

San Bartolome, 28 943 74 43 45



%10eko  
deskontua zapata eta  
boltsatan tiket hau  
aurkeztuz gero.



Abenduak 20 larunbata, zabalik!



# 1800€

## oparituko ditu



 **TXANKAKUA**

Babeslea

**EUSKO JAURLARITZA**

ERAKIMAREN GARAPEN  
ETA LERAKOTZEAREN SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Erosi itzazue opariak herriko denda txikietan. Era horretan, lagun gehiagok izango dituzte Gabon egun zoriontsuak.